

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ehunka pertsonak gaitzetsi dituzte Parisko eraso terroristak Nafarroako Gobernuak deitutako elkarretaratzean

Atentatuak gaitzesteko indar politiko guztien eta herritarren arteko batasuna azpimarratu du Barkos Lehendakariak

Domingo, 15 de noviembre de 2015

Ehunka pertsonak bat egin dute Nafarroako Gobernuak egindako deialdiarekin, eta isilpeko elkarretaratzea burutu dute Nafarroako Jauregiko fatxadaren aurrean, Parisen ostiralean gertatutako eraso terroristak gaitzesteko eta biktimei nahiz kaltetuei elkartasuna adierazteko.



Agintariak eta elkarretaratzean izandako herritar batzuk.

Elkarretaratzea amaitu ondoren, bertaratutako guztien txalo-zartarekin amaitu dena, Gobernuak Lehendakari Uxue Barkosek adierazi du Parisko erasoak "demokraziaren eta askatasunaren bihotzari egindako atentatuak direla", eta pozik agertu da erakundeek nahiz herritarrek emandako erantzunarekin; "elkartasun eta biktimen alboan egoteko keinu bat" izan dela esan du, eta indar politikoek nahiz herritarrek atentatuak gaitzesteko erakutsitako jarrera bateratua azpimarratu du ere Lehendakariak.

Nafarroako Gobernuak kontseilari guztiekin eta Departamentuetako goi-karguekin batera, deialdian izan dira ere: Parlamentuko lehendakari Ainhoa Aznarez; Nafarroako alderdi politiko guztietako eledunak eta hainbat parlamentari; Gobernu zentralerako ordezkari Carmen Alba; Francisco Javier Enériz Nafarroako Arartekoa; Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioko lehendakari Pablo Azcona; Iruñeko, Eguesko eta Tafallako alkate Joseba Asiron, Alfonso Etxeberria eta Arturo Goldarazena, hurrenez hurren; beste udalerrri batzuetako alkateak, eta sindikatu, enpresa nahiz kultura munduko ordezkariak.

Bertaratutako jendetzaren artean, Nafarroako komunitate islamiarreko ordezkariak, herritar frantsesak eta Afrikako iparraldeko herrialdeko ordezkariak zeuden, eta haiek guztiek dolu-xingola beltza zuten bandera frantsesak erakutsi dituzte hainbat pankartatan. Nafarroako Jauregiko fatxadako banderak haga erdira daude Barkos Lehendakariak atzo, larunbata, dekretu bat sinatu ondoren; dekretu horrekin, hiru dolu-egin deklaratu ditu Parisko atentatuengatik.

Nafarroako Gobernuko kontseilari guztiekin eta Departamentuetako goi-kargu batera, deialdian izan dira ere: Parlamentuko lehendakari Ainhoa Aznarez; Nafarroako alderdi politiko guztietako eledunak eta hainbat parlamentari; Gobernu zentraleko ordezkari Carmen Alba; Francisco Javier Enériz Nafarroako Arartekoa; Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioko lehendakari Pablo Azcona; Iruñeko, Eguesko eta Tafallako alkate Joseba Asiron, Alfonso Etxeberria eta Arturo Goldarazena, hurrenez hurren; beste udalerri batzuetako alkateak, eta sindikatu, enpresa eta kultura munduko ordezkariak.



Elkarretaratzean parte hartutako jendea.

Bertaratutako jendetzaren artean, Nafarroako komunitate islamiarreko ordezkariak, herritar frantsesak eta Afrikako iparraldeko herrialdeko ordezkariak zeuden, eta haien guztiek dolu-xingola beltza zuten bandera frantsesak erakutsi dituzte hainbat pankartatan. Nafarroako Jauregiko fatxadako banderak haga erdira daude Barkos Lehendakariak atzo, larunbata, dekretu bat sinatu ondoren; dekretu horrekin, hiru dolu-egin deklaratu ditu Parisko atentatuengatik.